



# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

**Erosketa Berdea**

# **ALDIZKARI** KONTSUMOBIDE 2012



ZK. 15



## ZURE ESKUBIDEA DA...

### **Ondo informatuta egoteko, arduraz erosteko**

Eta, hori lortzeko, hona hemen oinarritzko irizpide batzuk:

- *Erosi behar duzuna soilik: produktua beharrezkoa dela erabaki duzunean soilik erosi.*
- *Erosi tokiko produktuak: kontsumitu bizi zaren eskualde edo herrialdeko produktuak eta sasoikoak direnak.*

- *Minimizatu lehengaien kontsumoa: ahal duzun guztietan, aukeratu lehengaien kontsumoa minimizatzen duten produktuak edo zerbitzuak. Adibidez, erosi produktuak handizka, beharrezkoak ez diren bilgarriak ekiditeko, edo eskuratu bi aldetatik inprimatzen dituzten ekipoak. Zenbait produktu erosi aurretik, baloratu alokatzea.*

- *Minimizatu hondakinak: erosi produktu birziklatuak eta/edo birziklagarriak. Erosketa erabakitzerakoan, produktuak sortzen dituen hondakinak kontuan hartu dira, irizpide hauek jarraituz:*

1. *Murriztu: erosi gutxiago, hondakinak ekiditeko*
2. *Berrerabili: erabili produktu bat behin baino gehiagotan edo konpondu lehendik duzuna. Horrela, beren bizitza erabilgarria luzatuko duzu ordeztu aurretik*
3. *Birziklatu: erosi material birziklatuak edo birzikla daitezkeenak dituzten produktuak*





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

ZK. 15

- *Minimizatu energiaren kontsumoa, uraren kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen isuriak, eta erosi energia eta materialak aurrezten dituzten produktuak.*
- *Minimizatu toxikotasuna: erosi material toxikorik edo kutsatzailerik ez duten eta substantzia toxikorik askatzen ez duten materialak eta produktuak.*
- *Baloratu bidezko merkataritzaren irizpideak: erosi "bidezko merkataritza" gisa identifikatutako produktuak.*
- *Baloratu etiketetako informazioa: produktu askok informazio osagarria dute etiketetan eta produktu bat*

*edo bestea erosteko gida gisa balio dezakete. Ekoetiketak nabarmentzen dira (ikus aldizkariko bigarren atala, "eskubidea duzu..."), erakunde ofizialek ziurtatuta, araututa edo autoadierazpen gisa, hainbat gizarte-eta ingurumen-irizpide betetzen direla ziurtatzen dute.*

- *Baloratu produktua, eta ez prezioa: erosteko unean baloratu produktua eta ez prezioa soilik. Horrela, irizpide sortara gehituko da, besteak beste, egokitasuna, zehaztutako baldintzak betetzen diren, gizakien osasunean duen eragina edo bizitza-ziklo osoan dituen ingurumen-eraginen kostuak.*

ALDIZKARI  
KONTSUMOBIDE  
2012





## **Zein urrats jarraitu behar dira arduraz erosteko?**

Erosi aurretik saihestu behar ez diren arauak

- Aztertu ondasun/zerbitzu berri bat erosteko beharra. Erosi aurretik, ikusi lehen duzuna konpondu daitekeen.
  - Ikusi erosi nahi duzun produktuaren mota eta ezaugarriak.
  - Konparatu hainbat denda edo enpresek ondasun/zerbitzu mota bera erosteko eskaintzen dizkizuten baldintzak eta prezioak, eta aukeratu zure beharretara eta ordaintzeko gaitasunera gehien egokitzen dena.
  - Eskatu eta gorde aurrekontua.
  - Irakurri soseguz kontratuko baldintza guztiak (baita letra txikia ere); zerbait ulertzen ez baduzu, galdetu eta ez sinatu erabat ulertzen ez duzun ezer.
  - Eskatu eta gorde publizitatea, loteslea izanik, dendak edo enpresak publizitatean adierazitakoa bete behar baitu.
- Urruneko erosketa edo kontratazio bat gauzatu behar baduzu, ziurtatu enpresaren identitatea eta helbidea ezagutzen dituzula eta baduzula harekin harremanetan jartzeko modua.





## Ondasuna eta/edo zerbitzua erosi ostean, ez ahaztu

- Eskatu eta gorde erosketa-tiketa edo faktura, kontratua eta, balego, merkataritza-bermearen dokumentua.
- Irakurri eta errespetatu etiketetako argibideetan eta produktu/zerbitzuarekin batera etorritako jarraibideetan jarritakoa.
- Erositako produktua dendan edo laguntza teknikoan entregatzen duzun guztietan (bermea betetzea exijitzeko, konpontzeko...), eskatu eta gorde utzi izanaren frogagiria.
- Era berean, produktua konponduta entregatzen dizutenean, edo entregatutakoaren orde bestea ematen dizutenean, eskatu produktua jasotzen duzun eguna edo, bestela, egindako konponketa idatziz jasotzen duen ziurtagiri bat eta gorde ezazu.
- Bete kontratua sinatzerakoan zeure egindako obligazioak.
- Erreklamatu nahi baduzu, egizu berehala.
- Produktua erabiltzerakoan, egizu arduraz ahalik eta gehien iraun dezan.

ALDIZKARI  
KONTSUMOBIDE  
2012





# kontsumoBIDE

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO

ZK. 15

- *Bazterterakoan, eta oraindik funtzionatzen badu, pentsatu norbaitek oraindik erabil ote lezakeen.*
- *Produktua birziklagarria bada, bilatu hondakina botatzeko toki egokia; lehengaiak aprobeitza daitezzen.*

AV  
KO

